

**ASTIGARRAGAKO UDALAREN ETA ASTIGARTE ELKARTEAREN ARTEKO
HITZARMENA, DIRULAGUNTZA IZENDUNA ARAUTZEKO**

Astigarragan, 2026ko apirilaren 28an.

PARTE HARTZEN DUTE

Alde batetik, Xabier Urdangarin Lasa, Astigarragako alkatea, Astigarragako Udalaren izenean eta ordezkartzan.

Bestetik, Idoia Beratarbide Arrieta, G20588695 IF zenbakia duen Astigarte elkartearen izenean eta ordezkartzan.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko gaitasun osoa eta kasuan kasuko ordezkartza aitortzen diote elkarri eta eragin horretarako ondokoa

ADIERAZI DUTE:

1.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 25. artikularen eta/edo Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen 17. artikuluari jarraikiz, udalerrien eskumen propioa dela: Kultura eta kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.

2.- Astigarte elkartearen xedea, besteak beste, honako hau dela: Astigarragan kultura sustatzea, bereziki pintura eta marrazketaren arloan eta horretarako, besteak beste, marrazketa eta pintura eskolak emanez.

3.- Elkarteak Astigarragako Udalari 2.758€ko dirulaguntza eskatu diola, 2026-01-07an (2026-00000000033 erregistro-zenbakia) aurkezturiko eskariaren bidez, Astigarte elkartearen 2026ko jardunaren gastuei aurre egiteko.

4.- Astigarragako Udalak indarrean duen dirulaguntzen plan estrategikoan Astigarte elkarteari aurreikusitako dirulaguntza 5.250€ da eta plan horretan, dirulaguntza izendunen lerro hau jasotzen dela:

Pertsona hartzaileak: Astigarte elkarteak



Astigarragako Udala

Ematearen modalitatea: Izenduna.

Helburuak: Elkartek urtean zehar Erribera kulturgunean eskaintzen dituen arte tailerra antolatzeko laguntza ematea.

5.- Dirulaguntza hau bideratzeko Udal-aurrekontuetan 1 0700.481.01.334.24 2026 (4409) kontu-saila dago.

6.- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 22. eta 28. artikuluekin eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzarekin bat etorrira, zuzenean ematen diren dirulaguntzen erabakiak hitzarmen bidez hartu behar direla; eta ezinbestekoa dela araudi horietan xedatutakoa kontuan hartzea.

7.- Hirugarren akordioan jasotako jardueren izaerari zalantzarik gabe erantzuten dioten gastuak baino ez dira diruz lagunduko, betiere hitzarmenean ezarritako epeen barruan egiten badira. Bidaia gastuei dagokienez, Udalak gehienez garraio kostuaren %30 finantzatuko du.

8.- Elkartea desegingo balitz, Udalak emandako dirulaguntzekin erositako jantzi, instrumentu, material edo ekipamendua Udalaren jabetzakoa izango litzateke.

Ondorioz, bi aldeek erabaki dute hitzarmen hau onartzea akordio hauekin:

AKORDIOAK

LEHENA.- Hitzarmen honen xedea honako hau da: Udalak Astigarte elkarteari onartutako dirulaguntza izenduna arautzea.

BIGARRENA.- Ekintza hori bideratzeko Astigarragako **Udalak Astigarte elkarteari 2.758€-ko dirulaguntza emango dio.**

HIRUGARRENA.- Astigarte elkarteak betebeharrak hauek hartzen ditu:

3.1. Jarduera hauek burutzea:

- 2025-26 ikasturtean, hau da, urritik ekainera bitarteko haur, gazte eta helduentzako sormen tailerrak ematea Erribera kulturgunean
- Arte eskolako ikasturte amaierako erakusketa eta arte tailer irekia antolatzea Erribera kulturgunean.
- Hainbat artistekin eskola magistralak antolatzea ikasturtean zehar, hiruhileko bakoitzeko bana.

Astigarragako Udalak hala eskatuz gero, elkartearen xedearekin lotutako jardueraren batean parte hartuko du.

3.2. Dirulaguntzaren udal ordenantzaren 22. artikuluan adierazitakoa betetzea, hala nola: diru ekarpena dirulaguntzaren xederako erabiltzea, dirulaguntza zuritzea, beharrezko baimenak eskatzea, udalaren ikuskaritza onartzea, hizkuntza eta berdintasun irizpideak betetzea, aldaketa esanguratsuen berri ematea.

3.3. Elkartearen ardura izango da ekintza bideratzeko beharrezko giza baliabideak jartzea; eta nolanahi ere, indarrean dagoen legeria betetzea.

3.4. Dirulaguntza itzultzea, baldin eta dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak eta betebeharrak betetzen ez badira, eta, nolanahi ere, indarrean dagoen araudiak xedatutako kasuetan.

3.5. **Dirulaguntza justifikatzea** dirulaguntza, beranduenez, 2026ko irailaren 30erako zuritu beharko da udal ordenantzaren 24. artikuluan jasotako agiriak aurkeztuta.

3.6. Diruz lagunduko diren gastuak, udal ordenantzaren 8. artikulua dioenez, jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak izango dira.

Ostalaritza eta dieta gastuak zerbitzua edo lana ordaintzeko denean bakarrik onartuko dira, baldin eta gastua emandako zerbitzuarekiko proportzionala bada eta zerbitzua eman duen talde edo konpainia artistikoko kideetara mugatuta badago. Kanpotik bidaiatu behar duten talde ez profesionalen kasuan bakarrik onartuko dira zerbitzuaren fakturaz gain ostalaritza eta dieta gastu gehigarriak.

Bidaia gastuak berriz, gehienez %30ean lagunduko dira.

3.7. Jasotako zenbatekoak itzultzea, dagozkion atzerapen interesekin, Dirulaguntzen Lege Orokorraren 37. artikuluan araututako kasuetan, bai eta Dirulaguntzen Udal Ordenantzan edota hitzarmen honetan jasotako baldintzak ez betetzeagatik.

3.8. Hitzarmen honetan hitzartutako lankidetzak eta udalak indarrean duen dirulaguntzen Plan Estrategikoan Astigarte Elkarteari aurreikusitako dirulaguntza betetze mailaren jarraipena egiteko udalak eskatutako bilerak egitea eta informazioa ematea. Udalak horrela eskatuz gero, elkarteak ezingo dio uko egin.

LAUGARRENA.- Udalaren betebeharrak hauek izango dira:

4.1. Dirulaguntzaren Udal Ordenantzaren 23. artikulua aurreikusitako salbuespen kasutzat hartuta, laguntzaren %100a lehen ordainketan bideratuko da, dirulaguntzaren onarpenarekin batera.

4.2. Jarraian adierazten diren udal azpiegitura eta ekipamenduak uztea (*aretoak, espazio publikoak, mahaia, aulkiak...*), baldintza hauetan:

- Arte eskolak eta tailer irekia antolatzeko Erribera kulturguneko 103 gela eta bertako armairu batzuk eta terraza, baina beste erabilera eta erabiltzaileekin

partekatzekotan, beraz, ikastaro hasiera guztietan aretoen eskaera aurkeztuko du udaletxeko erregistroan erabilera egun eta orduak eta giltzaren baimena duten pertsonen izen-abizenak adierazita.

- Erakusketak antolatzeke Erribera kulturguneko erakusketa aretoa, baina aldioro eskaera aurkeztu beharko da udaletxeko erregistroan.
- Udal material eta ekipamendu orokorra Astigarteren esku egongo da beren jarduerara eta ekitaldietarako beharrezkoa bada eta libre baldin badago. Aldioro eskaera aurkeztu beharko da udaletxeko erregistroan.

4.3. Hitzarmen honen baitan burutuko diren jardueren informazioaren berri garaiz ematea Udalak hileroko agendan eta bestelako euskarrietan argitara dezan.

4.4. Diru itzulketen espedienteak izapidetzea udal ordenantzaren 26 eta 27. artikuluen arabera.

4.5. Hitzarmen honetan jasotakoak ez betetzea arau-haustetzat jo daitekeenean (*Dirulaguntzaren Udal Ordenantzaren 28. artikulua arabera*) zehapen espedienteak izapidetzea ordenantzaren 28 eta hurrengo artikuluei jarraiki.

BOSGARRENA.- Udalaren dirulaguntza bateragarria izango da beste erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketen bestelako dirulaguntzekin. Edozein modutan, ez da gain finantzaketarik egongo, eta hala gertatuko balitz, elkarteak dirua itzuli egin beharko luke.

SEIGARRENA.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta bere interpretazioan eta garapenean dirulaguntzei aplikagarria zaien administrazioaren ordenamendu juridikoa aplikatuko da.

Interpretazio hori egitea, Astigarragako Udalari dagokio eta horrek hartutako erabakiek amaiera emango diote bide administratiboari eta hartzen diren unetik bertatik bete beharrekoak izango dira.

ZAZPIGARRENA: Hitzarmen honetako alde biek hartzen dituzten betebeharrak edo erantzukizunak, eta elkarrengandik dituzten eskubideak, eta hitzarmen honetan aurreikusten edo jasotzen ez den guztietarako, honako legeria aplikatuko da:

1. Apirilaren 2ko Toki Korporazioetako Oinarri arautzailearen 7/1985 zenbakidun Legea eta apirilaren 18ko erregimen lokaleko arauak biltzen dituen 781/1986 zenbakidun Testu Bateratua, beti ere Kontratu Legean ezarritakoaren aurka ez baldin badaoa.
2. Herri Administrazioetako Dirulaguntzak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 Legea.

3. Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, zeinen bitartez dirulaguntza orokorrak arautzen dituen azaroaren 17ko 38/2003 legearena erreglamentua onartzen dena.
4. Dirulaguntzen Udal Ordenantza (*ordenantza eskura dago udalaren webgunean: <https://www.astigarraga.eus/eu/beste-ordenantza-batzuk>*)
5. Honetaz gain, zuzenbide administratiboko arauak eta bere kasuan zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

ZORTZIGARRENA.- Astigarte elkarteak 3.5 puntuan zehaztutako datan Astigarragako Udalari urteko jardunaren txostena aurkeztuko dio ondoko informazio eta agiriekin batera:

- **Memoriaren fitxa osatuta** (eskolak, ikasleak, saio bereziak, bestelako ekitaldiak.....datak, parte-hartzaileak, balorazioa, argazkiak...),
- **Gastuen zerrenda** (gastu bakoitzaren azalpena eta bakoitzari dagokion **faktura edota egiaztagiriak (zerrendaren ordena berean) eta horiek ordaindu izanaren egiaztagiriak** (transferentzia agiriak...)
- **Diru sarreraren ziurtagiriak.**
- **Hizkuntza eta berdintasun fitxak** eta ikus-entzunezko eta material grafiko oro (kartel, esku-orri, bideo...).

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen honetatik sortzen diren auziak administrazioko auzigaietarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira.

Horrela jaso dadin eta ados daudela adierazteko hitzarmen hau sinatu dute hasieran adierazitako lekuan eta datan.

Xabier Urdangarin Lasa
Udalaren izenean



Idoia Beratarbide Arrieta
Astigarte elkartearen izenean

